

JAI BATZORDEA

4.BILERA- balorazio bilera

Data: 2025-10-08

Ordua: 19:00

Lekua: Bilera gela

Partaideak: Garazi T., Iker A., Laura, Amaia A., Aitor G., Axier G., Nagore, Iker M. eta Nerea

IRAILAK 18, OSTEGUNA

EKINTZA	Programan eta karteletan ordutegia gaizki zegoen. (16:30ean hasiko zela iragarri beharrean 17:00etan jartzen zuen) Pare bat ordutako ekintza ondo dago, bestela motz gelditzen da.
16:30 HAUR TAILERRA	
Boluntarioak	Hezitzaileek antolatzen dute. Kontuan izan behar dugu, uztailean udalekuak amaitzean bergogoratzea ekintzarena, iraila erdirarte ez baitira lanean hasten.

EKINTZA	Oso balorazio positiboa jaso da.
18:00 MAHAI JOLASAK ETA TXOKOLATE JANA	
Boluntarioak	Jubilatu elkarteak antolatzen du.

IRAILAK 19, OSTIRALA

EKINTZA	Baleetan iraungitze data jartzea garrantzitsua da, festetako diru kontuekin amaitzeko eta bonoekin bueltaka ez ibiltzeko. Sariak haur guztiak zinta lortuta banatzean pisutsua egin da. Agian, adinka egin eta oparia eman, horrela ez dira hainbeste aspertuko zain. Bi buelta egiteko materiala genuen prest baina bakarra egin zuten.
16:30 ZINTA KARRERA ETA ASKARIA	
Boluntarioak	Guraso elkarteak antolatzen du.

EKINTZA	Puntual eta ondo egin dute. Ez da besterik aipatu.
18:00 PREGOIA ETA IJITTO JAITSIERA	
Boluntarioak	Ekipoa Ikerrek muntatu eta Nereak jasotzen du.

EKINTZA	Argazkiak ez ziren atera (Nerea M.) Errepidea etab. pixkat zaintzen egotea ondo baloratu da baina, hurrengo urtean peto horiak jarrita hobe.
Ondoren BURUHANDIAK	
Boluntarioak	Errepidea mozteko pare bat lagun

EKINTZA	Oso giro ona egon zen. Mantetzeko ekintzetako bat. Mixtoa izatea oso positiboki baloratu da.
18:30 DERBY ARAMA- ITSASONDO	
Boluntarioak	

EKINTZA	Herri afariari buelta bat emateko beharra:
21:00 HERRI AFARIA	- 2026ean Biziolarekin egiteko aukera baloratu. - Ongizateko proposamena; emakume migranteekin batera lanketa egin eta afaria elkarrekin prestatu. Taldeetan komentatu ea begi onez ikusten den edo "ohiko" afaria lehenesten den. - Prezio aztertu, udalak bere gain zerbait asumitzeko aukera baloratu. - Etxetik ekartzeko aukera berplanteatu. - Aurretik kubierto, edalontzi eta platerak garbitu eta nahikoak dauden ziurtatu behar da. - Umeei batera ematea ondo baina kontuan izan txikienak gurasoekin egoten direla (katerinekoei mahai jartzean abisatu)
Boluntarioak	Arduradun gehiago behar dira afarirako tiketak jaso, argazkiak atera, jasoketa egiteko... 20:00- 6 lagun mahaiak jasotzeko Bukatzean- 8 lagun mahaiak jasotzeko Bermatu boluntarioak badaudela.

EKINTZA	Edari tiketen sistema ondo joan da.
23:30 KONTZERTUAK KALEKO URDANGAK REBEL NOISE	Giro oso ona egon den arren, herri afari ondorenean erromeri estiloa larunbatean estilo hau jartzea erabaki da. 2026ko taldeak lotu ia 2026; Ostiralean: Balantza erromeria (Nerea Beñatekin egon) Larunbatean: Nafarroa 1512, Arene6... azaroko herri bizitzan erabaki eta kontratatu egingo dira (Gazteen proposamenak jaso)
Boluntarioak	Harrera egiteko etb. persona bat

EKINTZA	Hasiera ordua atzeratu zen taldekoek trasteak jasotzen ari zirelako eta
02:00 DJ BULL	02:30ean hasi zen. Kontuan izan jasoketa denbora. Bezperan taldetako ekipoarekin ea egiterik zegoen galdetu zen, jada berandu zen eta ez zitzairen teknikarie galdetu ere egin. 2026; Bi egunetarako soinuaztapenaz gain kontuan izan DJak etab. aurrekontuan sartu eta ekipoa horietarako erabiltzeko ere.
Boluntarioak	Ekipoa muntatzen ibili ziren Iker eta Ander.

IRAILAK 20, LARUNBATA

EKINTZA	Guraso elkartean norbaitek galdetu du ea inor entzuten dituen eta tradiziogatik egiten den. Ohiko ekintza dela eta mantentzea egokia ikusten da.
09:00 GOIZ ERESIA	
Boluntarioak	X

EKINTZA	Izen ematea koordinatu behar dugu. Guraso elkartekoak galdetegia bidali zuten eta udaletik eskolara. Haurrak nahasteko aukera dago hórrela. Izen ematen duten haur batzuk ez dira azaltzen eta izen emangabeak etortzen dira. Guztik ekiditea zaila da, baina, izen ematean parte hartzearen konpromisoa landu beharko dugu.
12:00 BEITIKO IGOERA	2. kategorian sariak ez zirela berdin banatu komentatu da, baina, argitu da sariak mistoak izan zirela eta moldatu egin behar izan zela ez zeudelako kopak eta dominak guztientzat. Guraso elkarteko kide batek lehenago izatea proposatu du, mozorrotzeko denbora izateko bazkialurretik.
Boluntarioak	Txirrindu Elkartekoak

EKINTZA	Bazkalostean kantua/ abeslaria/ bingo musikatua egitea proposatu da.
14:30 PAELLA JANA	Jolasak haurrak eta helduak ere ondo egongo lirateke.
Boluntarioak	Prestatzeko 2 lagun, zerbitzatzeko 3, frontoia garbitzeko 3 lagun Boluntariak daudela ziurtatu bestela ekintza egin edo ez baloratu.

EKINTZA	Beraien proposamena, muxutruk, ez etortzeagatik:
17:00 KALAKA JOLASAK	Goizez: Eskolan 2 orduko zientzia jolas saioa. Arratsaldez: Zuek aukeratutako tokian (ludotekan, plazan, frontoian, etab) Adin guztietarako jolas kooperatiboetan aritzeko 2 orduko jolas saioa. Guraso elkartean hitz egingo dute eta beste ekintza osagarriren batekin egiteko aukera baloratu. Talo janean, euskararen eguna...
Boluntarioak	X

EKINTZA	Mozorroak ondo ikusi eta baloratzeko desfile tanketarako bat egin, kalejira, eskaparetea proposatu da.
19:00 IJITTO SHOW ETA MOZORROEN DIPLOMA BANAKETA	Mozorro guztiek aipamenen bat jasotzea. Oholtzara banan igo- jaitsi ekidin behar dugu, beste modu bat pentsatu. Sakatu elektrotxaranga proposatu da, komentatu da agian mozerro desfilea izan zitekeela elektrotxarangarekin. Mozorroak hobe ikusi eta herri giroa sortzeko. Bestalde, guraso elkarteko kide batek komentatu du ea lehenago ezin den egin, bestela hanburgesak egiten egoten direla eta. Pottotte elektrotxaranga eta Sakatu elektrotxaranga tanteatu
Boluntarioak	

EKINTZA	Ondo baloratu da. Azkar eta ondo zerbitzatu zen.
20:30 HANBURGESA JANA	Batzuen iritziz 10€ garestia da. Beste batzuk, ordea, prezioa egokia dela eta Guraso Elkartea laguntzeko dela gogoratu dute.
Boluntarioak	Guraso elkarteak

EKINTZA	Balantza erromeria hurrengo urterako proposamena.
22:00 MUXUTRUK ERROMERIA	Sakatu elektrotxaranga proposatu da ere, komentatu da agian mozerro desfilea izan zitekeela elektrotxarangarekin.
Boluntarioak	Harrera egiteko norbait.

EKINTZA	Kablea eta kargadorea galdu dituzte, iaz bezala.
01:00 POTTOKIS	Azken momentuan bafle batzuk ekarri zituzten baina kableatu gabe, udaletxeko kableak erabili ziren. Ordaintzen zaiela kontuan izanda, zentzu horretan materiala etab. Aurrez prest izan/ zaindu behar dutela esan behar zaie.
Boluntarioak	X

IRAILAK 21, IGANDEA

EKINTZA	Puzgarriak plazan egotea ondo baloratu da. Ordutegia ere ondo, gero ekintzak daudela ikusita egokia.
11:00-13:00	
15:00-17:00 PUZGARRIAK	
Boluntarioak	

EKINTZA	Oso ondo baloratzen da baina boluntarioak topatzeko arazoak egoten dira. Ondo ziurtatu boluntarioak daudela jasotzeko eta elkartean ontziak garbitzeko.
12:00 HAMAIKETAKOA	
Boluntarioak	5 lagun jasoketarako

EKINTZA	Oso ondo baloratu da. Talde mixtoak izatea oso egokia. Argiak saltatu zuen. Sariak ere ondo, kamiseta opari eta frontenisekoak ardoa eta gazta.
18:00 HERRIKO PILOTARIEN PILOTA PARTIDA ETA FRONTENIS TXAPELKETA	
Boluntarioak	Aitor G. aurretik fronteniseko taldeak antolatzen eta egun bertan.

EKINTZA	Ondo joan zen, apartekorik ez da baloratu.
19:30 IJITTO IGOERA	
Boluntarioak	X

EKINTZA	Guraso elkartekoek jasotako balorazio batean berandu zela aipatu zuen. Hurrengo eguna astelehena izanik, ea goizago ezin daitekeen egin. Jai batzordetik ordua egokia dela ondorioztatu da.
20:00 SAGARDO DASTAKETA	
Boluntarioak	Arbelaitz elkarte arduratzen da.

Aipatu diren beste kontu batzuk:

- Festen aurretik, argindar asuntua ondo begiratu. Aurten, boletin berririk gabe egin da. Barrakeroen tomek arazoak eman dituzte. Barrakeroek beraien muntaia egitean, ondo ziurtatu argiteri asuntua ondo jartzen dutela. Agian, aparteko kaja bat jarri daiteke beraientzat.
 - Mozorro gaia 2026, azaroko herri bizitzan proposamenak ekarri eta bertan erabakiko da. Herriarrei denboraz abisatu behar zaie prestaketak egiteko denbora izan dezaten.
 - Barrakak oso garestiak dira, alternatibak aztertu behar dira aurrez.
 - Jubilatuei jubilatutako lokala herriarena dela azaldu behar zaie, guztiok zaindu behar dugula baina guztiontzat erabilgarri egon behar dela.
 - Karpa luzeagoa baloratu, txozna estalita gelditzeko. Beste 5m+ izango ziren.
 - Musika ekipo zaharra jubilatutako, bi bafle handi erosi eta mini jack eta ordenagailura lotzeko.
- Anderrekin egongo gara, bafleak osagarriak izan daitezkeen daukagun ekipoarekin.
- Ongizate taldeko kideren batek jai batzordean parte hartzea positiboa izango litzateke.
 - Ongizatekoek herri afarirako egin duten proposamena taldeetan aztertu eta herri bizitzan partekatuko dugu. (aipatu da ostiralean orokorrean jendeak lanerako gogo gutxiago duela eta agian igandeko paella izatea zegoela)
 - Kartelak jartzeko boluntarioen sarea aurretik egin, kartelak lehenago atera.
 - Markagailuaren instrukzioen dokumentu bat egin.
 - Festetako diru kontuak itxi gabe daude erabat baina, dirua gelditzen dela ikusita plater eta edalontzien aurrekontua baloratu 400 plater eta 250 edalontzi 660€ (BEZ barne) eta edalontzi handiak ere egitea baloratu da, aurrekontua eskatuko da. Zalantza suertatu da platerak erostean ez ote ziren bi tamainatakoak erosi, brigadakoei galdetu ea biltegian dauden.
 - Tableta ere ez dabil ondo eta hau ere erostea baloratzea eskatu da.
 - Herri sarreran jarri dien kartelak (Jaietan gaude etab.) handiagoak egin. (lehen ba omen ziren begiratu ea almagazenean dauden)